

## **‘Mariliendre’ fikzioa, Javier Calvok eta Javier Ambrossik ekoiztutako Atresplayer-en jatorrizko telesail berria, ‘Crossover. Cultura de Series’ jaialdian aurkeztuko da bihar.**

- *Hitzordua 17:00etan izango da, Tabakalerako zineman, eta bertan parte hartuko dute Javier Ferreiro telesailaren sortzaileak eta Martin Urrutia eta Omar Ayuso aktoreek, protagonistetako bik.*
- *12:00etan, Sonsoles Onega, Irene Rodríguez, Menna Fité eta Diego del Pozok Las hijas de la criada' Antena 3 kateko telesail berriaren filmazioaren lehen irudiak aurkeztuko dituzte Santa Teresa komentuan, Koldo Mitxelena Kulturuneko egungo egoitzan.*

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura sailak Kultur Factory kultur agentziarekin batera antolatutako ‘Crossover. Cultura de Series’ jaialdiak ‘Mariliendre’ telesailaren estreinaldia hartuko du bihar, bai eta goizeko saioa bat, ‘Las hijas de la criada’ filmaren lehen irudien aurkezpenarekin, eta ‘Cosecha del 25’ eta ‘Batalla de series’ saio klasikoak arratsaldean.

**Goizane Álvarez** Kulturako diputatuak Crossover-en hazkunde etengabea ospatu du. “Jaialdia Aldundiko Kultura Sailaren lan-ildo nagusietako baten barruan sortu zen: ekoizpenari, sorkuntzari eta kultura-ohiturei arreta ematea, eta, kasu honetan, ikus-entzunezkoen arloan, telesailen munduari arreta eskaintzea. Eta zortzigarren edizioan estreinaldiak, proiektio bereziak eta elkarrizketak uztartu ditu, eta proposamen desberdinak eta askotarikoak bete dituen publikoaren babesa jaso du”.

### **‘Mariliendre’**

‘Mariliendre’ bihar, larunbata, 17:00etan aurkeztuko dute Tabakalerako zineman **Javier Ferreiro** telesailaren sortzaileak eta bi protagonistek: **Martin Urrutia** musikari eta aktoreak eta **Omar Ayuso** aktoreak. **Alberto Rey** kritikariak moderatuko du saioa.

‘Mariliendre’, Atresplayer-en lehen musika-seriea, Atresmedia TV-k eta Suma Content-ek ekoitzia, Madrilgo gay gaueko erregina ohi baten ingurukoa da. Erregina hori, 35 urterekin, lur jota eta aspertuta bizi da bere orainaldi kaskarrean, baina, aita hil ondoren, adiskide izandakoekin birkonektatzen du.

**Javier Calvok** eta **Javier Ambrossik** ekoitzi dute, eta Malagako Zinemaldia ixten duen lehen telesaila izan da; ondoren, Frantziako Seriesmania jaialdian hautatu dute.

### **'Las hijas de la criada'**

Crossover-en zortzigarren edizioako azken eguneko programa eguerdiko 12:00etan hasiko da 'Las hijas de la criada'-ri buruzko elkarrizketarekin. Bertan, **Sonsoles Onegaren** eleberriak, 2023an Planeta Saria jaso zuena eta Buendía Estudios Canarias ekoiztetxeak Atresmediaren partaidetzarekin ekoizten ari denak, pantailara egingo duen bidaia aztertuko da. Elkarrizketan, idazleaz gain, **Irene Rodríguez** gidoilariak, **Menna Fité** zuzendariak eta **Diego del Pozo** Atresmediako fikziozko gerenteak hartuko dute parte.

'Las hijas de la criada' XX. mendearen hasieran Galizia eta Kuba artean girotutako eleberririk historikoa da, Valdés familiaren bizitzaren bidez garai hura islatzen duena. Lanak ezberdintasun soziala, matxismoa eta kontrol soziala bezalako gaiak jorratzen ditu, hauek elementu klasikoekin uztartuz, maitasun debekatuak eta alaba ez-legitimoak kasu. Protagonistek beren familia, lana eta eskubideak defendatzen dituzte, autonomia ukatzen dien testuinguru batean. Garai hartako murrizketen aurrean erresistentzia modu bat irudikatzen du bere ausardiak. **Verónica Sánchez** eta **Carlota Baró** dira ikus-entzunezko egokitapenaren protagonistak, eta kontrako errealitate sozialak irudikatzen dituzte.

### **Crossover-en itxiera bi klasikorekin: 'Cosecha del 25' eta 'Batalla de Series'**

19:00etan, 'Mariliendre' estreinatu ondoren, eta Tabakalerako Z Aretoan, 'Cosecha del 25' saioan kultura-kazetari talde batek urte honetan estreinatu diren telesailik onenak errebasatuko ditu, baita ikusmin handienarekin espero direnak ere. Solasaldian **Gaizka Izagirre**, **Eneko Ruiz**, **Marina Such** eta **Belen Prietok** hartuko dute parte.

Azkenik, eta edizioari agur esateko, 20:00etan, Z aretoan, 'Batalla de Series' saioa izango da, animazio garaikideko bi klasiko aurrez aurre jarriko dituenak: 'Los Simpson' eta 'Padre de Familia'.

Donostia, 2025eko martxoak 28.